



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

## Aroztegia ez inposatzeko eskatu dute 1.500 bat lagunek

**BAZTAN.** Aroztegia eta gero zer? plataformak deituta, manifestazioa egin dute Elizondan, Aroztegiako UGPS-a gelditzeko eta Baztango herritarren erabakia errespetatu dadila eskatzeko. "Behin eta berriz erran dugun bezala, ez dugu Nafarroako Gobernuak UGPS bidez egin nahi dugun inposaketa hau onartzen eta egitasmo urbanistiko honen aitzinean baztandarrok dugun iritzia zein den jakiteko beharra ikusten dugu, demokraziaren beharra ikusten dugu, herritarren tenorea da", adierazi dute deitzaileek. Baztandar guztiei gogorarazi diete Baztango Udalean sinadura eman dezaketela herri galdeketa egin ahal izateko. Momentu honetan 500 herritar inguruk sinatu dute eta hortaz 200 sinadura inguru falta dira helburua betetzeko.

## Barakaldotik Logroñora

Argia  
@argia

"Barakaldokoa naiz eta EHUtik Logroñoko Magisteritzara joan behar izan dut" erreportajea (jatorrizkoa gaztelaniaz) kaleratu dute *El Correo* egunkarian eta zeresana eman du. EHUn Irakaskuntza gaztelaniaz ikasten duten hainbat ikasle kexu dira artikuluan, euskarazko B2 maila ziurtatu behar dutelako EHUn ikasteko. Leioako campuseko ikasleek umoretsu erantzun dute:

Barakaldokoa naiz eta daukat paro obrero, horregatik Logroñora noa ni egunero. Euskaraz tutik ez eta gogorikan zero *Correoi* elkarrizketa eman diot gero. Ahoa bero-bero hego haizeak ero Espainian bezero ez gutxio espero eta irakasle ni Salamancan edo.

DONOSTIA 2016



14.740

euroko kostua izan zuen Donostia 2016ko inaugurazioan zerbitzatu zen catering-ak. Tabakalerara gonbidatutakoek dastatu zuten: gonbidatuak 1.478 izan arren, 679 joan ziren azkenean.

800.052 euro gastatu ziren inaugurazio ekitaldian.



### EMAKUNDE SARIA

Hitez Emakume Baserritarren Elkarteak eta Arabako Landa Eremuko Emakumeen Sareak jaso dute Emakunde Saria, "Emakumeen Ahalduntzea, Berdintasunerako Gakoak" jardunaldien baitan.



### BREITAINIERAREN ALDE KORRIKA

Nantesetik gertu dagoen Sant-Ervlanen hasi, eta Lokoal-Mendon bitartean egingo dute bretoiaren aldeko korrikaldia, Redadeg izeneko, apirilaren 29tik maiatzaren 7ra. Denera, 1.700 kilometro.



### TRANSEXUALITATEA LANTZKO

Transexualitatea lantzeko lehen material didaktikoa argitaratu du Chrysallis elkarteak. Haur transexualen gurasoek osatzen dute elkarte eta ikastetxeetan gaia lantzeko proposamena da, sei fitxatan oinarritua.